



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2012ko azaroaren 16a

96. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

- Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena (2. or.).
- Iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua (4. or.).
- Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena. Osoko zuzenketak (14. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa. Zuzenketak aurkezteko epea (19. or.).
- Foru Lege proposamena, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaritzen dituena. Zuzenketak aurkezteko epea (19. or.).
- Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera. Izapidetze prozedura aldatu da (20. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2012ko urriaren 31n hartutako erabakiaren bidez, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Xedatzea Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duen Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetuko dela, Erregelamenduko 152. eta 153. artikuluetan ezarritako berezitasunak kon-tuan hartuta.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalme-na Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziale-an argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko abenduaren 13an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2012ko azaroaren 13an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proiektua, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzen duena

ZIOEN AZALPENA

Foru lege proiektu honen xedea da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aldatzea, eta horren zenbait alderdi azpimarratzea.

Apirilaren 6ko 7/2010 Foru Legeak Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatu zuen, barne merkatuko zerbitzuei buruzko 2006/123/EE Zuzentaraura egokitzeko, eta jarduera pribatuko esku-hartze administratiboan artean sartu zituen aurretiazko komunikazioa edo erantzukizuneko aitortpenaren aurkezpena eta jarduera hasitakoan kontrolak egitea.

Zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko abenduaren 28ko 20/2011 Foru Legearen bidez, lehenago "Establezimenduentzako irekitze eta jarduera lizentziak ematea" kargatzen zituen tasa aldatu zen, eta "aldez aurreko baimenik edo kontrolik behar ez duten jardueren kasuan baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduketak egitea" kargatzera pasa zen.

Merkataritza eta zenbait zerbitzu liberalizatzeko premiazko neurriei buruzko maiatzaren 25eko 19/2012 Errege Lege Dekretuaren bidez, aurretiazko baimenaren orde, erantzukizuneko aitortpen edo aurretiazko komunikazioan oinarritutako osteko kontrol-araubidea ezarri zen.

Merkataritza sustatzeko neurriok Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legean sartuta, bidezko da, lehenik, hirigintzako eta establezimenduak irekitzeko lizentziak ematea kargatzen duten tasen zergapeko egitea aldatzea, kontrolerako jarduera administratiboak ere har ditzan, lizentziaren orde, erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa eskatzen direnean.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga ere ukitzen dute liberalizazio-neurriok, eta 2/1995 Foru Legeko zergapeko egitateari, subjektu pasiboari eta zergaren kudeaketari buruzko manuak aldatzen dituzte.

Zergapeko egitateari gehitu zaio erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea eskatzen duen edozein eraikuntza, instalazio edo obra egitea.

Eraikuntza subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordezkari izanen dira beharrezko erantzukizuneko aitortpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkezten dituztenak.

Kudeaketa fasean behin-behineko likidazioa egitea aurreikusten da, baita erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkezten denean ere.

Azkenik, errepideak, bideak, lur gaineko bestelako bideak eta ur jabari publikoko ondasunak, betiere erabilera edo aprobetxamendu publiko eta doakoa dutenak, Lurraren Kontribuzioari lotzetik libre uzten dituen manua aldatzearen xedea da behin betiko erabakitzea hainbeste eztabaida eta justizia auzitegien erabakien interpretazio ezberdinak sortu dituen auzia.

Eztabaidatutako gaia honetan oinarritu da: zereztu eman beharko litzaiokeen "aprobetxamendu publiko eta doakoa" terminoari, azpiegiturak "itzalpeko bidesaria" izenekoaren bidez ustiatzen direnean, hau da, erabiltzaileak zuzenean ordaindu ordez, ordainketa zeharka egiten denean, Administrazioak enpresa emakida-hartzaileari ordaintzen dion kanonaren bidez.

Bada, arauak ezarri du, halakoetan, errepideak, bideak, eta abar Lurraren Kontribuzioari lotzetik libre uztea, aprobetxamendu horrek erabiltzaileentzat doakoa izan behar duelako.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduari Testu Bateratuaren 152. eta 153. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, Foru Lege proiektu honek gehiengo absolutua behar du onetsi ahal izateko.

Artikulu bakarra. 2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legearen manu hauek honela geratuko dira idatzita:

Bat. 100.5.h) artikulua.

"Zoruari eta hirigintza antolamenduari buruzko legeek eskatzen dituzten hirigintza lizentziak ematea, edo kontrolerako jardura administratiboak egitea, lizentzia eskatu ordez erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa eskatzen denean."

Bi. 100.5.i) artikulua.

"Establezimenduentzako irekitze lizentziak ematea, edo kontrolerako jardura administratiboak egitea, lizentzia eskatu ordez erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa eskatzen denean."

Hiru. 106. artikulua.

"106. artikulua.

Jabari publikoaren erabilera pribatibo edo aprobetxamendu bereziagatik edo zerbitzu berriak osorik edo partez finantzatzeko tasak ezartzeko erabakiak, txosten tekniko-ekonomikoak oinarri direla hartu beharko dira, zeinetan agerian jarriko baita merkatuko balioa edo aurreikus dakiekeen estaldura, kasuan kasu.

Ez da aurreko lerroaldean aipatzen den txosten tekniko-ekonomikorik beharko, errebalorizazio edo eguneratze orokorren ondoriozko erabakiak hartzen direnean, ez eta tasen zenbatekoa murrizten denean ere, salbu eta dagokion zerbitzuko kostuaren murrizketa handia denean."

Lau. 134.3.a) artikulua.

"a) Errepideak, bideak, lur gaineko bestelako bideak eta ur jabari publikoko ondasunak, betiere erabiltzaileentzat aprobetxamendu publiko eta doakoa baldin badute."

Bost. 167. artikulua.

"167. artikulua.

Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga zeharkako zerga da eta haren zergapeko egitatea udal mugapeko edozein eraikuntza, instalazio edo obra egiteak sorrarazten du, horretarako behar den obra edo hirigintza lizentzia edukitzea nahitaezko baldintza bada, lizentzia hori erdietsia izanik ala izan gabe, edo erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztea nahitaezko baldintza bada, betiere lizentzia ematea, hura emateko txostena, Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 39. artikuluan xedatutakoaren arabera, edo kontrol-jardura badagokio zerga ezartzen duen udalari."

Sei. 169. artikulua.

"169. artikulua.

1. Zerga honen subjektu pasibo dira, zergadun gisa, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren 25. artikuluan aipatzen diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak edo entitateak, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe direnak, haiek kokatuta dauden higiezinaren jabe izanik ala izan gabe.

Aurreko lerroaldeko ondorioetarako, eraikuntzaren, instalazioaren edo obraren jabe izanen da haiek egiteak dakartzaten gastuak edo kostua bere gain hartzen duenak.

2. Eraikuntza, instalazioa edo obra subjektu pasibo zergadunak egiten ez duenean, zergadunaren ordeko subjektu pasibo izanen dira dagozkion lizentziak eskatu, dagozkion erantzukizuneko aitortpenak edo aurretiazko komunikazioak aurkeztu, edo eraikuntzak, instalazioak edo obrak egiten dituztenak.

Ordezkoak zergadunari eskatzen ahalko dio ordaindutako tributu-kuotaren zenbatekoa.”

Zazpi. 171.1. artikulua.

“1. Aginduzko lizentzia ematen denean, erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunika-

zioa aurkezten denean, edo, lizentzia eskatu, eman edo ukatu edota erantzukizuneko aitortpena edo aurretiazko komunikazioa aurkeztu baino lehen, eraikuntza, instalazioa edo obra hasi bada, konturako behin-behineko likidazioa eginen da, eta honela zehaztuko da zerga-oinarria:

a) Interesdunek aurkeztutako aurrekontua aintzat hartuta, betiere dagozkion elkargo ofizialak ikus-onetsia, aginduzko betebeharra denean.

b) Zerga ordenantzak hala aurreikusten duenean, hartan ezartzen diren indize edo moduluak aintzat hartuz.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

Iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobeitzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.a) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2012ko urriaren 31n hartutako erabakiaren bidez, Iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 127. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei Foru Lege proiektua prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denean, **hamabost egun balioduneko epea hasiko da eta 2012ko abenduaren 13an, eguerdiko hamabietan, bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. artikuluan ezarritakoarekin bat, parlamentutaldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proiektuari.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Iruzur fiskalaren aurkako tributu-neurriei buruzko Foru Lege proiektua

ZIOEN AZALPENA

Iruzur fiskalaren aurkako borrokan gogor ekiteko, legegintzako hainbat neurri onestea du xede foru lege proiektu honek. Ez dago zalantzarik, edozein ekonomia ezkuturen aurkako borroka, orokorrean, eta iruzur fiskalaren aurkakoa, zehazki, izan behar dela zerga administrazioen jarduketan gidatuko duen argi nagusietako bat, eta areago krisi ekonomikoaren une hauetan, non bereziki nabaria den diru-sarrera publikoen gutxitzea.

Iruzur fiskalak oinarrizko hiru zerga printzipioen aurka egiten du, orokortasunaren, berdintasunaren eta justiziaren aurka. Gastu publikoen sostenguan guztiek hartu behar dutela parte adierazten du orokortasunaren printzipioak. Bakoi-tzak bere gaitasun ekonomikoaren arabera ordaindu beharri lotzen zaio berdintasunaren printzipioa. Azkenik, zerga sistema baten justizia aurreko bi printzipio horien konbinazioan oinarritzen da, ekitatearekin eta gehikortasunarekin batean. Begi bistakoa da herritar eta entitate juridiko batzuek ez badituzte beren zerga betebeharrak betetzen, sistema fiskala ez dela zuzena eta zama fiskala bidezkoa ez.

Zail da zalantzan jartzea iruzur fiskalak herritar gehienei kalte egiten diela; izan ere, iruzurgileek Ogasun Publikoan egiten ez dituzten ekarpenen ondorioz, gainerako herritarrek zerga gehiago ordaindu behar dute edo zerbitzu publiko gutxiago jaso, baliabideak gutxitzen direlako. Gainera, ezkutuko ekonomiak eta iruzur fiskalak kalte egiten diete beren betebeharrak betetzen dituzten enpresei, bidegabeko lehia handia eragiten dietelako maiz.

Iruzur fiskalaren aurkako borroka orokorra izan behar du, ahal diren tresna guztiak erabili behar dira eta iruzur mota guztiak jarri behar dira begira-puntuan: ohikoenak eta berriak, norberak egiten duen iruzurra eta sareen bitartez egiten dena, askotan beste delitu batzuei lotua, hala nola diru zuritzeari edo kapital-ihesari.

Foru Komunitateko zerga administrazioa borroka horretan buru-belarri ari bada ere, arlo horretan jaso den esperientziagatik eta iruzurgileen jokabideetan ikusi diren aldaketengatik, komenigarria da hura tresna berritzailez hornitzea, esparru guztietan ondorioa izan dezaten: kudeaketan, ikuskapenean, diru-bilketan eta zigor arloko jurisdikzioan Ogasun Publikoaren aurkako delituak jazartzen direnean.

Egungo krisi egoeran, baliabide publikoen gutxitzeak inoiz baino beharrezkoago egiten du iruzur fiskalaren aurkako borroka. Helburu horrekin, foru lege proiektuak hainbat neurri diseinatu ditu, hiru helburu lortzera bideraturik:

a) Diru-sarrera publikoen gutxitze garrantzitsuen iturri gisa atzeman diren iruzur mota batzuen aurka egitea. Horrela, besteak beste, zerga erantzukizunarekin, hartzekodunen konkurtsoekin eta enpresen oinordetzarekin zerikusia dutenak.

b) Zerga-kreditua bermatzen duten arauak hobetzea, haiek eguneratzeko edo behar bezala interpretatzen argitzeko, segurtasun juridikoa handitzearen. Esate baterako, aldaketak preskripzio epean eta etenduran, eta embargoetan.

c) Kautelazko neurriak hartzea Ogasunaren aurkako ustezko delituetan, edo erabiltzeko behar duenak; orobat, betebeharrak ezartzea atzerrian diren ondasun eta eskubideen gaineko informazioari buruz.

Foru lege honek bost artikulua eta azken xedapen bat ditu.

Lehen artikulua Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra aldatzen du. Aldaketak era askotako gaietara buruzkoak dira. Zerga erantzukizunaren figurari dagokionez, aipagarria da erantzukizun subsidiarioaren kasu berri bat sortu dela, egitatezko edo zuzenbidezko administratzaileak ukituko dituen atxikipenen autolikidazioak edo zerga ondorioenak aurkezten dituztenean diru-sarrerarik egin gabe, behin eta berriz eta zerga betebeharrak betetzeko benetako asmorik gabe. Erantzukizun kasu hori behar bezala mugatzearen definitu dira autolikidazioak behin eta berriz aurkeztearen kontzeptua, autolikidazioak diru-sarrerarik egin gabe aurkeztearena eta betebeharrak betetzeko benetako asmorik ez izatearena.

Enpresa oinordetzari dagokionez, desegin eta likidatutako sozietateek bete gabeko betebeharren ordainetarako likidazio kuota baliokidatuko da: likidazio kuota zenbatekoarekin ordaintzeaz gain, desegite dataren aurreko bi urteetan jasotakoaren mugaraino ordainduko dute, baldin eta jasotakoak betebeharren ordaina izan beharko lukeen sozietatearen ondarea gutxitu badu. Hau da, enpresa desegin aurreko bi urteetan bazkideek jasotakoaren gaineko erantzukizuna ere izanen du, baldin sozietatearen ondarea gutxitu badute. Neurri horren bidez, galarazi nahi da bazkideek likidazio aurreko eragiketen bidez sozietatearen ondarea banatzea eta, hartara, likidazioaren kuota oso urria izatea edo ez izatea. Gainera, zerga betebeharren eskualdaketa modu berritzaile batean arautu da Nafarroan sozietateak eta nortasun

juridikoa duten entitateak azkendu edo desegiten direnean. Likidaziorik gabeko desegitea, eskuarki, enpresa berregituratzeko kasuei buruzkoa da, hala nola bat-egiteak, zatiketak eta aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorrak. Kasu horietan, azkentzen diren entitateen betebeharrak haien oinordeko diren pertsona edo entitateei, edo eragiketaren onuradun direnei eskualdatuko zaizkie: sozietate bereganatzaileei edo zatiketaren onuradunei. Aipatu behar da bete gabeko betebeharren eskualdaketa nortasun juridikoa duten entitateengan ere baduela eragina, nahiz sozietateak ez izan. Gainera, sozietateen eta nortasun juridikoa duten entitateen oinordekoek, haiek desegin edo likidatu badira edo likidaziorik gabe desegin, entitate deseginaren zehapenen erantzule izanen dira eta, zein den kasua, likidazio kuotaren eta bazkideek desegite dataren aurreko bi urteetan jasotakoaren mugaraino, baldin eta jasotakoak betebeharrei aurre egin beharko liekeen sozietatearen ondarea gutxitu badu.

Preskripzio arloan, bi berrikuntza garrantzitsu daude. Alde batetik, preskripzioa kontatzeko arauak erantzukizun kasuetara egokitu dira. Zehazki, preskripzio epearen hasiera zehazten da erantzule solidario eta subsidiarioen kasuan. Erantzule solidarioen kasuan: zordun nagusiaren borondatezko ordainketa epea bukatzen denetik hasiko da kontatzen. Erantzule subsidiarioen kasuan: zordun nagusiari edo edozein erantzule solidariori egindako azken diru-bilketa jakinarazten zaionetik. Bestetik, berrikuntza hauek egin dira preskripzioaren etenduraren esparruan:

– Administrazioak zerga betebeharraren elementu guztietara edo batzuetara zuzendutako ekintzak eteten du preskripzioa. Hau da, zerga betebeharraren elementu baten preskripzioa etenik, betebeharraren elementu baten preskripzioa eteten da.

– eta hori, nahiz eta hasieran Administrazioaren jarduna beste zerga betebeharrak batera zuzendu subjektu pasiboaren aitortzen okerraren ondorioz. Hau da arrazoia: tributudunak okerreko zerga aitortpena egin izanaren ondorioz, Administrazioak betebeharrak horren preskripzioa eten eta, gero, zerga betebeharrak beste bat zela frogatuz gero, azken horren preskripzioa ere eten egiten da.

– preskripzioa bi kasu berrietan eteten da: zordunaren konkurtsoa deklaratzeko denean eta zerga zorra kobratzeko ekintza zibilak edo penalak erabiltzen direnean.

– tributudunaren preskripzio epea etendakoan, etenduraren eragina gainerako tributudunentzat ere bada, erantzuleak barne.

– auzi, konkurtso edo legezko beste arrazoi batzuetatik zordun nagusiarentzat edo erantzule-etako batentzat preskripzio epea etenez gero, ondorio bera izanen da gainerako tributudun solidarioentzat, beste erantzule batzuk izan edo zordun nagusia bera izan. Preskripzioa eten izanak ez du galarazten bidezko kobrantza ekintzek aurrera jarraitzea.

Kautelazko neurrien birmoldatze garrantzitsua ere egin da.

Hauek dira berrikuntza nagusiak:

a) Kautelazko neurri berriak hartu dira, hala nola, ondasun edo eskubideak besterendu, kargatu edo erabiltzeko debekua, eta portzentaje baten atxikipena, enpresek kontratistei eta azpikontratistei ordainduz gero.

b) Zilegi da kautelazko neurriak hartzea prozeduraren edozein unetan: Administrazioak, arrazoi-etan oinarrituta, behar adina frogatzen duenean aginduan adierazitako kasuak eta mugak gertatu direla (zerga kreditua ez ordaintzeko arrazoizko zantzuak, proportzionaltasuna, hertsiki beharrezkoa den zenbatekoa, edo konpontzeko zailak edo konponezinak diren kalteak sortzerik gabe).

c) Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik prozesu judiziala abiatuta ere, zerga administrazio-ko organo eskudunak kautelazko neurriak hartzen ahalko ditu. Kasu horretan, neurria jakinaraziko zaie interesdunari, Fiskaltzari eta organo judizial eskudunari.

Enbargoen esparruan, bi aldaketa garrantzitsu egin dira. Lehenik, kreditu entitateetako ondasun eta eskubideen enbargo-eginbidean identifikatu gabeko beste ondasun eta eskubide batzuetara zabaltzen ahalko da, kreditu entitatean gordailututa badaude eta ez, orain arte gertatzen zen moduan, enbargo agindua igorri zeneko bulegoan edo sukurtsalean bakarrik.

Bigarrenik, neurri egiatan berritzailea ezarri da. Akzioak edo partaidetzak enbargatuta dituzten sozietateen ondasun higiezinez baliatzeko debekua ezartzen ahalko du zerga administrazioak. Horrela egin ahal izateko, akzio edo partaidetzen titularrak den tributudunak sozietatearen kontrol efektiboa izan behar du.

Beste kontu batzuetan, zerga administrazioaren eskumenak zabaldu dira delitu fiskalaren prozesuetan. Delituaren instrukzioa jurisdikzio penalera iraganik ere, Nafarroako Zerga Ogasuneko diru-bilketaren organoek, agintari judizialak gainbegiratuta, eskumena izanen dute delituari atxikitako diru-kopuruak ordaintzeko izan litekeen ondarea ikeritzeko. Organo horiek delituarekin zerikusia duten

pertsonen ondare egoerari buruzko txostenak egin ahalko dituzte, eta kautelazko neurriak hartu.

Atzerrian diren ondasun eta eskubideez informatzeko berariazko betebeharrak berri bat ezarri da, eta zehapen araubide zorrotz bat ere bai, betebeharrak hori betetzen ez bada, ondorio garrantzitsuak dituena pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan.

Honako honi buruzkoa da informatzeko betebeharrak:

a) Atzerrian diren kontuak, kreditu entitateetan irekiak.

b) Atzerrian gordailututa edo kokatuta dauden titulu, aktibo eta baloreak. Orobat, bizi- edo baliatze zintzasun-aseguruak, biziarteko edo aldi baterako errentak, atzerrian diren entitateekin kontratatutakoak.

c) Atzerrian diren ondasun higiezinak eta bere titulartasuneko higiezinak gaineko eskubideak.

Bigarren artikulua 4. idatz-zatia erantsi dio Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamenduari 48. artikuluari, eta zehazten du tributuduna konkurtsoan izanez gero, masaren aurkako kreditutzat jotzen diren zerga zorrak ezin izan direla geroratu. Neurri horren bidez, tributudaren ordainketa atzeratzeko jokabideak moztu nahi dira hartzekodunen konkurtsoetan.

Hirugarren artikulua beste idazketa bat ematen dio Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen Testu Bategineko 44. artikuluari. Artikulu horrek justifikatu gabeko ondare gehikuntzaren figura arautzen du. Aldaketak hirugarren lerroaldea eranstean du, eta xedatzen, betiere, atzerrian diren ondasun eta eskubideak, aipatu aitorpen informatiboan epe barrenean deklaratzeko ez direnak, justifikatu gabeko ondare gehikuntzatzat hartuko direla. "Betiere" horrek zorrotz xedatu nahi du subjektu pasiboari ez zaiola onartuko aitortu gabeko ondasun horiek preskribatuta dauden zergaldietan bereak zitueta frogatzea. Horrela, zeharka, aginduak "iuris et de iure" presuntzioa ezartzen du aitortu gabeko ondasun horien gainean, halako moduan non justifikatu gabeko ondare gehikuntza gisa konputatuko baitira beti, eta subjektu pasiboak aurkez dezakeen frogak ezin izan du presuntzio hori ahuldu. Gainera, agindua ezartzen du, erregularizatu daitekeen preskribatu gabeko zergaldi zaharreneko likidazio oinarri orokorrean sartzeko.

Laugarren artikulua 5. idatz-zatia erantsi dio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 9. artikuluari. Aginduaren ratioa pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren kasukoa bera da. Betiere, pertsona juridiko

koen ondasun eta eskubideak, atzerrian izan eta aipatu aitorpen informatiboan epe barrenean aitortu ez direnak, aitortu gabeko errenten kargura eskuratu direla ulertuko da. "iuris et de iure" presuntzioa ezartzen da aitortu gabeko ondasun horien gainean, halako moduan non aitortu gabeko errenten kargura eskuratu direla ulertuko baita beti, eta subjektu pasiboak aurkez dezakeen frogak ezin izan du presuntzio hori desegin.

Bosgarren artikulua puntualki aldatzen du Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legea. Eta hori, Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariari gaikuntza emateko asmoz, prozedura informatiko egokiak arautu dituzan, fundazioek behar bezala bete ditzaten aurrekontu eta finantza arloko informazioa emateko duten betebeharrak, lege behartuta baitaude, eta zerga arloko administrazioak jarraipen eta kontrol hobeak egin ahal dakizkien.

Lehenengo artikulua. Tributuei buruzko Foru Lege Orokorra.

Foru lege honek indarra hartzen duenetik aurrerako ondorioekin, jarraian ematen diren Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorreko aginduek honelako testua izan dute:

Bat. 29.3. artikulua.

"3. Foru lege honen 30. artikuluko 4. idatz-zatian xedatutakoa izan ezik, zordunak borondatezko ordainketa egiteko aldiak daukan zerga-zor osoraino iritsiko da erantzukizuna.

Borondatezko ordainketa egiteko epea iragan, eta erantzuleak diru-sarrerarik egin ez badu, ordainarazpen aldia hasiko da eta, zorra, bidezkoak diren errekargu eta interesekin batera, premiamendu bidez eskatuko da.

Erantzukizuna ez da zehapenetara iritsiko, foru lege honetan edo beste batean ezartzen diren salbuespenekin.

Erantzukizuna zehapenetara iristen den kasuetan, zordun nagusiak 71.3 artikuluan aurreikusitako murrizketarako eskubidea izan badu, zordun nagusiari murrizketa aplikatu gabe bidezkoa den zenbatekoa izan da zordun nagusiaren zorra, eta adostasuna emanen zaio erantzuleari erantzukizun-deklarazioaren proposamenean.

Aipatu 71.3 artikuluan aurreikusitakoa da adostasunagatiko murrizketa. Erantzuleak lortutako murrizketa besterik gabe eskatuko zaio edozein erreklamazio edo errekurso aurkeztuz gero erantzukizun-deklarazioaren akordioaren aurka, deribazioaren bidezkoatasunean edo likidazio deribatuetan oinarrituta.

Idatz-zati honetan aurreikusitako murrizketa ez zaie aplikatuko 30.4 artikuluan zorrak ordaintzeko aipatu erantzukizun kasuei.”

Bi. 29.4 artikuluko azken lerroaldea.

“Dena dela, 30.4. artikuluan ezarritako kasuetan, aurrekontu horrek hartzen dituen likidazioak ezin izanen dira aurkaratu, erantzukizunaren zenbateko osoa baizik. Orobat, aipatu artikuluan aurreikusitako kasuetan, ez da 70.6 artikuluan xedatutakoa aplikatuko, ateratzen den zenbatekoa zorretatik edo tributu zehapenetatik etorri.”

Hiru. 32. artikulua, 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. Langile, profesional edo beste enpresaburu batzuei atxiki beharreko kopuruaren edo jasanarazi beharreko tributuen ondoriozko tributu-zorren erantzule subsidiarioak izanen dira zor horiek aitortzera eta diru-sarrera egitera behartutako pertsona juridikoen egitatezko edo zuzenbidezko administrazioaileak, jardueraren jarraipena izanik, tributu kontzeptu horiengatik diru-sarrera gabeko autoliquidazioak behin eta berriz aurkezten direnean eta egiaztatzen ahal denean aurkezpen horrek ez duela benetako asmorik autoliquidazioaren xedeko zerga betebeharra betetzeko.

Autoliquidazioak behin eta berriz aurkeztu direla ulertuko da, urte natural batean, elkarren segidan edo ez, behar direnen erdiak edo gehiago diru-sarrerarik gabe aurkezten direnean, geroratzeko edo zatikatzeko eskaera egin edo ez, eta aurkezpena epe barrenean edo epetik kanpo egin izan.

Ondorio horietarako, luzatzeko edo zatikatzeko eskaera eginik, baimen hori emateko ebazpena duten autoliquidazioak ez dira konputatuko, non ez diren gero bete gabe uzten, noiznahi betetzen ez direla ere, eta behar bezala formalizatutako bermearekin eman direnak ez dira inoiz konputatuko.

Erantzukizun honen ondorioetarako, autoliquidazioak diru-sarrerarik egin gabe aurkeztutzat joko dira bigarren idatz-zatian aipatu urte naturaleko diru-sarreretatik guztira ateratzen den zenbatekoa ez denean sartu beharreko kuota autoliquidatuen guztirakoaren %25 baino handiagoa, nahiz diru-sarrera partzialak izan aurkeztu diren autoliquidazio guztietan edo batzuetan.

Lehen lerroaldean aipatu betebeharrak betetzeko benetako asmorik ez dela usteko da kasu honetan: hirugarrenen titulartasuneko kredituak ordaindurik, haien mugaeguna xedapen honetan ezarritako erantzukizunak hartzen dituen zerga betebeharrak sorrarazi ziren edo galdagarriak gertatu ziren egunekoak baino geroagokoa izanik, zerga betebeharraren ondoriozko zerga-kredituen aurrean lehentasunezkoak ez badira.”

Lau. 33.2. artikulua.

“2. Desegin eta likidatutako entitateen edo sozietateen kasuan, haien bete gabeko zerga betebeharrak bazkideei edo kapitaleko partaideei eskualdatuko zaizkie; haien erantzule solidario izanen dira, esleitu zaien likidazio kuotaren eta desegin aurreko bi urteetan ondareagatik jasotako balioaren mugaraino, betebeharraren erantzule izan beharko lukeen sozietate-ondarea gutxitzen zutela, 30.4.a) artikuluan aurreikusitakoa galarazi gabe.”

Bost. 33. artikulua, 3. idatz-zatia gehitzea.

“3. Sozietateak eta nortasun juridikoa duten entitateak likidaziorik gabe desegin edo azkentzen diren kasuetan, bete gabeko zerga betebeharrak haien oinordeko pertsona edo entitateei eskualdatuko zaizkie edo eragiketaren onuradun direnei. Nortasun juridikoa duen entitate eta sozietate baten aktiboaren eta pasiboaren lagapen orokorreko edozein kasutan ere aplikatuko da arau hori.”

Sei. 33. artikulua, 4. idatz-zatia gehitzea.

“4. 2. eta 3. idatz-zatietan aipatu sozietate eta entitateek egindako arau-hausteengatik izan daitezkeen zehapenak haien oinordekoei eskatzen ahalko zaizkie, idatz-zati horietan ezarritako moduan eta, zein den kasua, 2. idatz-zatian xedatutakoaren arabera zehaztutako balioaren mugaraino.”

Zazpi. 56. artikulua, 2. idatz-zatia gehitzea. 56. artikulua gaur egungo edukia 1. idatz-zatia izanen da.

“2. Zordun nagusiak borondatezko aldian ordaintzeko epea bukatu eta biharamunean hasiko da kontatzen erantzule solidarioei ordaintzeko betebeharra eskatzeko preskripzio epea.

Dena dela, erantzukizuna osatzen duten egintzak aurreko lerroaldean finkatutako epe ondotik gertatuz gero, egintza horiek gertatzen direnean hasiko da preskripzio epea.

Erantzule subsidiarioen kasuan, zordun nagusiari edo edozein erantzule solidarioi egindako azken diru-bilketa jakinarazten zaionetik hasiko da preskripzio epea kontatzen.”

Zortzi. 57.1. artikulua.

“1. 55. artikuluko a), b) eta c) letretan aipatu preskripzio epeak kasu hauetan etengo dira:

a) Tributudunak ezagutza formala duela, zerga administrazioaren edozein egintza dela medio, zerga betebeharraren elementu guztiak edo batzuk ezagutu, erregularizatu, ikuskatu, aseguratu, egiaztatuz, likidatu eta diru-bilketa egiteko bada,

nahiz egintza, hasieran, beste zerga betebeharrak baterako izan, tributudunaren okerreko aitortpenaren ondorioz.

Orobat, lehen aipatu jarduketek ez ezik, zehapen prozedura hasteak etengo ditu zehapenak ezartzeko preskripzio epeak.

b) Edozein eratako erreklamazio edo errekurtsioak aurkeztuta; erreklamazio edo errekurtsio horietan, tributudunak ezagutza formala duela, jarduketak eginda; zordunaren konkurtsoa deklaratu-ta; zerga zorra kobratzera bideratutako egintza zibil edo penalak erabilia; erruduntasun-testigantza jurisdikzio penalera igorrita edo salaketa Fiskaltzan aurkeztuta; baita administrazio prozedura geldiarazteko agintzen duen organo jurisdikzional baten komunikazioa jasota ere.

c) Tributudunak zorra ordaindu, likidatu edo autolikidatzera bideratutako edozein jarduketa dela medio.”

Bederatzi. 57. artikulua, 3. idatz-zatia gehitzea.

“3. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren errekurtsioa aurkeztuta, egintza zibil edo penalak erabilia, erruduntasun-testigantza jurisdikzio eskudunera igorrita edo salaketa Fiskaltzan aurkeztuta edo prozedura geldiarazten duen komunikazio judiziala jasota eteten denean preskripzio epea, Administrazioak prozesu judiziala bukatzen duen edo geldialdia kentzen duen ebazpen irmoaren jakinarazpena jasotzen duenean hasiko da berriro preskripzio epearen kontaketa, edo espediente itzultzen duen Fiskaltzaren jakinarazpena jasotzen denean.

Preskripzio epea zordunaren konkurtso deklarazioagatik etenez gero, konkurtsoa amaitzeko ebazpen judiziala irmo bihurtzen denean hasiko da berriro kontaketa. Hitzarmen bat onetsi bada, onesten den unean hasiko da berriro preskripzio epea, haren menpe ez dauden tributuzorren zat. Konkurtso hitzarmenaren menpeko zerga zorrei dagokienez, zordunari eskatzen ahal zaizkionean hasiko da berriro preskripzio epearen kontaketa.

Idatz-zati honetan xedatutakoa ez zaio aplikatu zerga administrazioak ordainketa eskatzeko duen eskubidearen preskripzio epeari, etendura administrazioarekiko auzibidean erabaki ez bada.”

Hamar. 57. artikulua, 4. idatz-zatia gehitzea.

“4. Tributudunaren preskripzio epea etendakotan, etenduraren eragina gainerako tributudunentzat ere izanen da, erantzuleak barne. Dena dela, betebeharrak mankomunatu bada eta tributudunetako bati baino ez bazaio dagokion zatia erreklamatzeko, epea ez zaie gainerakoei etengo.

Ordaintzera behartutako baten kargurako zor likidatu bat baino gehiago izatera, zeri buruzko zorra den, haren preskripzioa bakarrik etengo da.

Zordun nagusiari edo erantzuleetako bati buruz auzia, konkurtsoa edo legezko beste edozein arrazoi dela-eta, 55.b) artikuluko preskripzio epea etenez gero, eragin bera izanen du solidarioki ordaintzera behartutako gainerako subjektuentzat, erantzuleak beste batzuk edo zordun nagusia izan, bidezko kobrantza egintzek jarrai dezaten galarazi gabe.”

Hamaika. 70.6. artikulua.

“6. Zerga zehapenen betearazpena besterik gabe etengo da, bermea aurkeztu beharrik gabe, haien aurka bidezkoa den errekurtsioa edo administrazio erreklamazioa garaiz eta behar bezala aurkeztuta, eta ez dira betearaziko administrazio bidean irmo bihurtu arte.

Idatz-zati honetan xedatutakoa erantzukizun deribazioaren xedeko zerga zehapenak eteteko aplikatu da, bai subjektu arau-hausleak zehapena errekurritzen duenean, bai, 29.4 artikuluan xedatutakoa erabilia, erantzuleak zehapena errekurritzen duenean. Agindu hau dela-eta, ez da inoiz besterik gabe etengo deribazioaren xedeko zerga zorra.

30.4 artikuluan aurreikusitako zorrak ordaintzeko erantzukizunak ere ez dira etengo agindu honen arabera.”

Hamabi. 118. artikulua.

“118. artikulua. Kautelazko neurriak.

1. Diru-bilketarako eskuduna izanik, zorren kobrantza segurtatzeko, Administrazioak behin-behineko kautelazko neurriak hartzen ahalko ditu arrazoizko zantzuak daudenean, hala egin ezean kobrantza ezinezkoa izan litekeelako edo zailtasun larriak leudekeelako.

Kautelazko neurria behar bezala jakinarazi beharko zaio ukituari, haren aplikazioa justifikatzen duten arrazoiak espres aipatuta.

2. Neurriek galarazi nahi den kaltearen proportzioak izan beharko dute, eta zorraren kobrantza segurtatzeko doi behar den zenbatekoa izanen dute. Konpontzea zaila edo ezinezkoa den kaltea eraginen luketenak ez dira inoiz hartuko.

3. Kautelazko neurri hauek hartzen ahalko dira:

a) Zerga itzulketen ordainketa edo Foru Komunitateak egin beharreko beste ordainketa batzuk atxikitzea. Zerga itzulketa osorik edo zati bat kautelaz atxikitzeko, interesdunari jakinarazi beharko zaio itzulketaren erabakiarekin batera.

b) Ondasun eta eskubideen prebentziozko enbargoa; halakorik bada, aurreneurritzko idatzoharra eginen da.

c) Ondasun edo eskubideak besterendu, kargatu edo erabiltzeko debekua.

d) Haien jarduera nagusiari dagozkion obren exekuzioa edo zerbitzuak ematea kontratatu edo azpikontratatu duten enpresek kontratistei edo azpikontratistei egindako ordainketen portzentaje bat atxikitzea, langileei, profesionalei edo beste enpresaburu batzuei atxiki beharreko zenbatekoiei edo jasanarazi beharreko tributuei dagozkien zerga betebeharrak bermatzeko, kontratazioaren edo azpikontratazioaren xedeko obrei edo zerbitzuei dagokien zatian.

e) Legez aurreikusita den beste edozein.

4. Kudeaketa, ikuskapen eta diru-bilketaren prozedurak tramitatzen direnean hartzen ahalko dira artikulua honetan araututako kautelazko neurriak, zerga administrazioak arrazoibidez eta behar adina egiaztatzen ahal duenetik 1. idatz-zatian ezarritako kasuak direla eta 2. idatz-zatian adierazitako mugak betetzen direla.

5. Kautelazko neurriek ez dute ondoriorik izanen haiek hartu eta sei hilabeteko epean, salbu kasu hauetan:

a) Enbargo bihurtzen direnean premiamendu prozeduran edo kautelazko neurri judizialean, kautelazko neurria hartzen den egunetik izanen baitute eragina.

b) Haiek hartzera eraman zuten inguruabarrak desagertzen direnean.

c) Interesdunak eskatuta, nahikotzat jotzen den beste berme batek ordeztzen duenean.

Beti ere, kautelazko neurriak kendu egin behar dira tributudunak kreditu entitate baten edo elkarrenganako bermedun sozietate baten abal solidarioa edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria aurkeztuta, kautelazko neurriaren zenbatekoa kobratuko dela bermatzeko. Tributudunak borondatezko epean ordaintzen badu zerga betebeharra (hori betetzeko zen kautelazko neurria) diru-sarreraren etendurarik gabe, aurkeztutako abalaren gastuak ordaindu behar ditu zerga administrazioak.

d) Arrazoitutako erabaki baten bidez epe hori luzatzen denean, baina ez sei hilabete baino gehiago.

6. Diruaren eta salgaien prebentziozko enbargoa erabakitzen ahalko da, eta establezimendurik gabe egindako irabazizko jarduera aitortu gabeengatik eskatu beharreko zerga zorra ordainduko

dela segurtatzeko adinakoa izanen da. Orobat, zerga administrazioari aurretik aitortu gabeko ikuskizun publikoetako diru-sarreraren prebentziozko enbargoa erabakitzen ahalko da.

7. Egiaztatzeko edo ikertzeko ikuskatze prozedura bat dela-eta, salaketa edo kereila jarri denean Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik edo, delitu horrengatik, prozesu judiziala bideratu denean, zerga administrazioeko organo eskudunak artikulua honetan araututako kautelazko neurriak hartzen ahalko ditu, hamazazpigarren xedapen gehigarrian xedatutakoa galarazi gabe.

Ustezko delituaren ikerketa ez bada egiaztatzeko eta ikertzeko ikuskatze prozedura batetik sortu, Fiskaltzak gauzatutako ikerketa eginbideak hasi ondoren hartzen ahalko ditu zerga administrazioeko organo eskudunak kautelazko neurriak edo, zigor arloko eginbideak hasi ondoren, halakorik bada.

Aurreko lerroaldeetan aipatu kasuetan, salaketan edo kereilan Zigor Kodearen 126. artikuluan aipatzen diren zenbatekoen ordainketaren balizko erantzule zuzeneko edo subsidiario gisa identifikatutako edozein subjekturen aurka bideratzen ahalko dira kautelazko neurriak.

Zerga administrazioeko organo eskudunak kautelazko neurria harturik, interesdunari, Fiskaltzari eta organo judizial eskudunari jakinaraziko zaie, eta hari eutsiko zaio azken horrek bidezko erabakia hartu arte, hura neurri jurisdikzional bihurtu edo kendu.”

Hamahiru. 122.1. artikulua.

“1. Zerga administrazioak dakienean kreditu entitate baten bulego jakin baten edo beste pertsona edo entitate gordailuzain baten esku utzitako funtsak, baloreak edo bestelako ondasunak egon badaudela, haien enbargoa xedatzen ahalko du, bidezko den zenbatekoan, pertsona edo entitate horren identifikazio datuak eta kontu, gordailu edo eragiketa bakoitzaren egoera zehaztu beharrik gabe. Baloreak direnean, pertsona edo entitate gordailuzainak enbargoaren unean emandako informazioaren arabera balore horiek homogeneoak ez badira edo haien balioa aurreko artikulua 1. idatz-zatian adierazitako zenbatekoa baino handiagoa bada, oztopatuta gelditu behar direnak zehaztuko ditu diru-bilketaren organoak.”

Hamalau. 124. artikulua, 5. idatz-zatia gehitzea.

“5. Zerga administrazioak sozietate baten ondasun higiezinak erabiltzeko debekua erabakitzen ahalko du, diru-bilketaren prozedurak haren aurka egin beharrik gabe, tributudunari haren akzioak edo partaidetzak enbargatu zaizkionean eta hark duenean higiezin horien sozietate titula-

rraren gaineko kontrol efektiboa, erabatekoa edo partziala, zuzena edo zeharkakoa, Merkataritza Kodearen 42. artikuluan aurreikusitako moduan eta nahiz beharturik ez egon kontu bateratuak egitera. Erabiltzeko debekuaren aurreneurritzko idatzoharra egiten ahalko da jabetza erregistro eskudunean finkentzat irekitako orrian, dagokion aginduaren ondorioz, non erregistroko titularra ez den beste baten aurkako kautelazko neurriaren balioa justifikatuko baita kontrol zerrenda izateagatik; aginduan berean zehaztuko da horren arrazoia.

Erabiltzeko debekuaren aurkako errekurtsioaren oinarria neurri hori hartzeko egitatezko arrazoi- etako baten falta bakarrik izaten ahal da.

Neurria kenduko da tributudunaren partaide- tzen edo akzioen enbargoa azkentzen denean, edozein arrazoi dela-eta. Orobat, zerga administra- zioak erabiltzeko debekua kentzea erabakitzen ahalko du, hari eusteak konpontzeko zailak edo konponezinak diren kalteak, sozietateak behar bezala frogatuak, eragin ditzakeenean edo, inte- resdunak eskatuta, nahikotzat jotzen den beste berme batekin neurria ordeztzen denean.”

Hamabost. Hamazazpigarren xedapen gehiga- rria eranstea.

“Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Onda- rea ikertzeko eskumenak, Ogasun Publikoaren aurkako delitu auzietan.

Ogasun Publikoaren aurkako delitu auzietan, eta Polizia Judizialaren unitateei dagozkien ahal- menak galarazi gabe, Nafarroako Zerga Ogasune- ko diru-bilketaren organoek izanen dute eskume- na, agintari judizialak gainbegiratuta, delituari atxikitako diru-kopuruak ordaintzeko izan litekeen ondarea ikertzeko.

Ondorio horietarako, 103., 104. eta 123. artiku- luetan aurreikusitako ahalmenak erabiltzen ahalko dituzte, baita delituari lotutako pertsonen ondare egoerari buruzko txostenak egin eta 118. artikuluko 7. idatz-zatian aurreikusitako kautelazko neurriak hartu ere.

Jarduketa horien eta horietan izandako gorabe- hera eta emaitzen berri emanen zaio berehala zigor arloko epaileari, eta horrek ebatziko du har- tutako neurriak berretsi, aldatu edo kendu behar diren.

Egiten diren jarduketak lege honetan eta bere garapeneko araudian aurreikusitakoaren menpe jarriko dira, epaileak beste jarduketa batzuk egitea erabakitzea galarazi gabe, Prozedura Kriminalaren Legearen 989. artikuluan aurreikusitakoaren babe- sean.”

Hamasei. Hemezortzigarren xedapen gehiga- rria eranstea.

“Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Atzerri- an diren ondasun eta eskubideei buruz informa- tzeko betebeharra.

1. Tributudunek, 275 eta 103. artikuluetan xeda- tutakoari jarraituz eta erregelamenduz ezarriko den moduan, hurrengo informazioa eman beharko diote zerga administrazioari:

a) Banku edo kreditu trafikoan aritzen diren entitateetan irekita dauden atzerriko kontuei buruz- ko informazioa, haiek titular edo onuradun badira, edo haietan baimendu gisa agertzen badira edo bestelako modu batez haiek erabiltzeko ahalmena badute.

b) Kapital soziala ordezkatzeko duten titulu, akti- bo, balore edo eskubideei, era guztietako entitate- en funts bereki edo ondareei edo hirugarrenei lagatako kapital berekiei buruzko informazioa, haien titularrak badira eta atzerrian gordailututa edo kokatuta badaude, baita bizi- edo baliaezinta- sun-aseguruei eta biziarteko edo aldi baterako errentei buruz ere, haien onuradunak badira kapi- tal bat dirutan, ondasun higigarritan edo higiezine- tan ematearen ondorioz, atzerrian ezarritako enti- tateekin kontratatuta dituztela.

c) Atzerrian diren ondasun higiezinei eta onda- sun higiezinen gaineko eskubideei buruzko infor- mazioa, haien titularrak direlako.

Aurreko hiru lerroaldeetan aurreikusitako bete- beharrak benetako titularrak direnentzat ere iza- nen dira, Kapital zuriketari eta terrorismoaren finantzaketari aurrea hartzeko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen 4. artikuluko 2. idatz-zatian aurreikusitakoaren arabera.

2. Arau-hauste eta zehapenen araubidea.

Tributuaren aurkako arau-hauste soilak dira xedapen gehigarri honetan aipatu diren aitorten informatiboak epetik kanpo, osatu gabe, zehaztu gabe edo datu faltsuekin aurkeztea.

Aitorten horiek baliabide elektronikoko, informati- ko eta telematikoez bestelako moduz aurkeztea ere tributuari aurkako arau-haustea da, baliabide horien bidez egiteko betebeharra dagoenean.

Arau-hauste horiek honako arau hauei jarraituz zehatuko dira:

a) Atzerrian diren kreditu entitateetako kontuei buruz informatu beharra betetzen ez den kasuan, 5.000 euroko isun finkoa izanen da zehapena, aitorpenean agertu beharreko kontu bati berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, baita

modu ez osoan, zehaztu gabe edo faltsututa agertuta ere; gutxienez, 10.000 euro izanen dira.

Zehapena 100 eurokoa izanen da kontu bati berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, eta gutxienez ere 1.500 eurokoa, aitorpena epetik kanpo aurkeztu bada zerga administrazioak errekerimendurik egin gabe. Modu berean, aitorpena baliabide elektronikoko, informatikoko edo telematikoez bestelako moduz aurkeztea zehatuko da, baliabide horien bitartez egiteko betebeharra dagoenean.

b) Atzerrian gordailutu, kudeatu edo lortutako titulu, aktibo, balore, eskubide, aseguru eta erren-tei buruz informatu beharra betetzen ez den kasuan, zehapena 5.000 euroko isun finkoa izanen da aitorpenean agertu beharreko ondare elementu bakoitzari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, elementu horiek banaka hartuta haien motaren arabera, baita modu ez osoan, zehaztu gabe edo faltsututa agertuta ere; gutxienez, 10.000 euro izanen dira.

Zehapena 100 eurokoa izanen da ondare elementu bakoitzari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, elementu horiek banaka hartuta haien motaren arabera, eta gutxienez ere 1.500 eurokoa, aitorpena epetik kanpo aurkeztu bada zerga administrazioak errekerimendurik egin gabe. Modu berean, aitorpena baliabide elektronikoko, informatikoko edo telematikoez bestelako moduz aurkeztea zehatuko da, baliabide horien bitartez egiteko betebeharra dagoenean.

c) Atzerrian diren ondasun higieziei eta ondasun higiezinaren gaineko eskubideei buruz informatu beharra betetzen ez den kasuan, 5.000 euroko isun finkoa izanen da zehapena, aitorpenean agertu beharreko ondasun higiezin bati berari edo ondasun higiezin baten gaineko eskubide bati berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, baita modu ez osoan, zehaztu gabe edo faltsututa agertuta ere; gutxienez, 10.000 euro izanen dira.

Zehapena 100 eurokoa izanen da ondasun higiezin bati berari edo ondasun higiezin baten gaineko eskubide bati berari buruzko datu edo datu-multzo bakoitzeko, eta gutxienez ere 1.500 eurokoa, aitorpena epetik kanpo aurkeztu bada zerga administrazioak errekerimendurik egin gabe. Modu berean, aitorpena baliabide elektronikoko, informatikoko edo telematikoez bestelako moduz aurkeztea zehatuko da, baliabide horien bitartez egiteko betebeharra dagoenean.

Xedapen gehigarri honetan erregulatutako arau-hausteak bateraezinak dira 67. artikuluan ezarritakoekin.

3. Tributu bakoitza arautzen duten legeek beraizko ondorioak ezartzen ahalko dituzte informatzeko betebeharra, xedapen gehigarri honetan ezarria, betetzen ez den kasuan.”

Bigarren artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketaren Erregelamendua.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, 4. idatz-zatia erantsi zaio Nafarroako Foru Komunitateko Diru-bilketari buruzko Erregelamenduaren (uztailaren 2ko 177/2001 Foru Dekretuak onetsia) 48 artikuluari.

“4. Aurreko 2. idatz-zatian ezarritakoa galarazi gabe, tributudunaren konkurtsoaren kasuan, ezin izanen dira geroratu, ezta zatikatu ere, konkurtsoei buruzko legeriaren arabera masaren aurkako kreditutzat jotako zerga zorrak.”

Hirugarren artikulua. Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 44. artikulua ondortik ematen den testua izanen du. Testu bategina ekainaren 2ko 4/2008 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

“44. artikulua. Justifikatu gabeko gehikuntzak.

Zergadunak aitortutako errenta edo ondareekin bat ez datozen ondasun edo eskubideak izatea, aitortzea edo eskuratzea justifikatu gabeko ondare gehikuntzat joko da, baita ez dagoen zorrik zerga honen edozein aitorpenetan edo ondarearen gaineko zergan sartzea ere, edo liburu edo erregistro ofizialetan erregistratzea.

Zer zergalditan deskubritu, haren likidazio oinarri orokorrean sartuko dira justifikatu gabeko ondare gehikuntzak, salbu subjektu pasiboak behar adina frogatzen badu ondasun eta eskubideen titularrak zela preskripzio epea baino lehenagotik.

Beti ere, justifikatu gabeko ondare gehikuntzat joko dira, eta erregulariza daitekeen preskribatutako gabeko zergaldi zaharreneko likidazio oinarri orokorrean sartuko dira, haien titularrak horretarako emandako epean bete ez badu informatzeko betebeharra, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen dena.”

Laugarren artikulua. Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Legea.

2013ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietarako ondorioekin, 5. idatz-zatia erantsi zaio Sozietateen gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 24/1996 Foru Legearen 9. artikuluari.

“5. Betiere, aitortu gabeko errenten kargura eskuratutzat joko dira, eta erregulariza daitekeen preskribatu gabeko zergaldi zaharrenari egotziko zaizkio, haien subjektu pasiboak horretarako emandako epean bete ez badu informatzeko bete-beharra, Tributuei buruzko abenduaren 14ko 13/2000 Foru Lege Orokorraren hemezortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen dena.”

Bosgarren artikulua. Fundazioen eta Babes Jardueren Tributu Araubidea erregulatzen duen Foru Legea.

7. idatz-zatia erantsi zaio Fundazioen eta babes jardueren tributu araubidea erregulatzen duen

uztailaren 2ko 10/1996 Foru Legearen 11. artikuluari.

“7. Aurreko 2., 3. eta 6. zenbakietan aipatzen diren dokumentuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak ezartzen duen moduan eta tokian aurkeztuko dira, eta hark erabakiko du zer prozedura erabili eta zer baldintzatan aurkeztu, baita baliabide informatiko edo telematiko bitartez aurkeztu behar diren edo ez.”

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra, legean berean aurreikusitako ondorioekin.

Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.

OSOKO ZUZENKETAK

Legebiltzarreko Erregelamenduko 130. artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen ondoko Foru Lege proiektuari aurkezturiko osoko zuzenketak: “Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena”. Proiektu hori 2012ko ekainaren 29ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2012ko urriaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

OSOKO ZUZENKETAK

1. ZUZENKETA

**NAFARROA BAI ETA BILDU-NAFARROA
PARLAMENTU-TALDEEK AURKEZTUA**

Osoko zuzenketa, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proiektuari aurkeztua. Foru Lege proiektuaren izenburu osoa honakoa da: Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.

Zioak: Bi urte ere ez dira pasa abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea onetsi zenetik. Foru lege horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortu zen, eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezarri.

Atentziona ematen du hain denbora gutxi dela onetsitako arau baten alderdi funtsezkoak aldatu nahi izateak; are gehiago, oraindik ere lege horretan jasotako gai garrantzitsu ugari garatu gabe daudenean. Eta hori hala da, nahiz eta, hirugarren xedapen gehigarrian, Nafarroako Gobernuaren ardurapean ipini zen Foru Legearen berehalako garapena egitea, hiru hilabeteko epean.

Egiazta daiteke, beraz, Nafarroako Gobernuak axolagabekeria erakutsi duela lege baten garapenari dagokionez, lege hori ez baitzuen nahi, eta Parlamentuko gehiengo politikoak ezarri baitzion. 2010eko eztabaidan bertan, UPNko eledunak alegatu zuen, proposamenaren aurka bozkatzeko, “larriki mugatzen zela Administrazioaren antolatze-gaitasuna”. Bere ustez, lege proposamenak arautzen zituen antolamendu-gaiek eta kudeaketari buruzkoek Exekutiboaren eskumenean gelditu behar zuten, eta ez zituen Parlamentuak ezarri behar.

Eta jarrera bera eta axolagabekeria bera gelditzez da agerian lege proiektu hau aurkeztearekin, duen asmo bakarra baita orain bi urte eskas sortutako entitate publiko baten muina bera eta ahalbidea hutsaltzea. Beraz, Nafarroako Gobernuak, UPNk sostengatua, Parlamentuko gehiengoak lege bat onetsi eta, bi urte geroago, lege hori aldatzera dator; orduan, ez zuen zuzenketarik bat ere aurkeztu, jakinda ere lege proposamena onetsi egingen zuela Parlamentuak –hala gertatu zen–.

Foru Legearen zioen azalpenean, luze eta zabal ageri da zer xede duen: “Ezinbesteko premia da organismo publiko bat sortzea zeinak Foru Komunitaterako zentralizatuko baititu eta esleituta edukiko baititu odol-, zelula- eta ehun-bankuaren eginkizunak, eta bermatuko baitu indarreko legedi konplexu eta zorrotza betetzea”.

20/2010 Foru Legearen 1. eta 2. artikuluetan, entitatearen sorrera, izaera eta araubide juridikoa arautzen dira; ezaugarriok izanen dituela esaten da: “Osasunbideari beste edozein zentro bezala atxikia, Osasunbideko Laguntza Espezializatuko Zuzendaritzaren menpean, eta osasun-zerbitzuen

alorreko erakunde bati dagozkion kontsiderazioarekin eta zuzendaritza-egiturarekin.”

Bada, foru lege proiektuan, entitatearen izen aldaketa sustatzen da, argudio gisa erabilia “berez, ez dela entitate publiko bat sortu”. Lege proiektuak, horrela, 1. artikuluan, Odol eta Ehun Bankua arautzen du “Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritza Medikoari atxikitako unitate organikoa den osasun zentro” gisa. Horretarako ematen den funtsezko arrazoia da “Administrazioaren barne-egiturak dinamikoa izan behar duela, eta koordinazioa eta koherentzia behar dituela”; eta, ondorioz, proposatzen duena hau da: Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren gainerako egitura organikoaren batera gara dadila egitura organikoa, unean uneko benetako beharretara egokitzeko orduan tresna juridiko egokiago eta arinagoa bilaka dadin.

Ez gaude batere ados proposatzen den kudeaketa-planteamenduekin. Kalitate-eskakizunek eta segurtasun-arauek, bai eta jarduera hau Estatuaren gairikoa arauen menpe egoteak, eskatzen dutena da kudeaketarako autonomia handiagoa, horrela arintasuna, dinamismoa eta gardentasuna lortzearen. Eta ez dago batere argi, gure ustez, Nafarroako Ospitaleguneko Zuzendaritza Medikoari atxikitako unitate organiko bat izanda, beste edozein zerbitzu balitz bezala, arintasuna edo dinamikotasuna lortzea, errealitateak erakusten baitigu Bankuak behar duen koordinazio maila ospitalez gairikoa dela.

Beraz, ezin gaitzek 11. eta 12. artikulua kentzearekin ados egon –artikulu horietan arautzen dira Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankuak izanen dituen Kudeaketaren eta Giza Baliabideen zuzendariari eta zuzendariordeari buruzkoak–; izan ere, kudeaketa-autonomiaren aurka doa hori, eta autonomia hori beharrezkoa da bankuak zuzen eta modu eraginkorrean funtziona dezan.

Eta arrazoi horrexegatik ezin gara ados egon, halaber, 13. artikulua kentzearekin, hau da, Emateen eta Transplanteen Kontsulta Batzordeari buruzko artikulua ezabatzearekin, gure ustez organo hori beharrezkoa delako zentroaren beharrak kontrolatzeko eta ebaluatzeko.

Bide beretik, eta kontsulta- nahiz aholku-organoekin jarraituz, lege proiektuak planteatzen duena da Hemoterapia Batzordeak, Legearen 14. artikuluan arautua baitago, organo gisa jarrai dezala, baina funtsezkoak iruditzen zaizkigun zenbait alderdi aldatu egiten dira. Batetik, Laguntza Espezializatuko zuzendariaren ordez, Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari medikoa izanen da

batzordeko kide, eta, horren ondorioz, autonomia gutxiago izanen du Odol eta Ehun Bankuak. Aldi berean, koordinazio eta kontrol aukerak urrituta gelditzen dira, bileren maiztasunaren aipamena desagertu egin baita. Legeak, hala, honela zioen a) letran: “Sei hilabete behin odol- eta hemoderibatu-ematearen bilakaera jakitea, horrela ebaluatzeko Odol Bankuko zerbitzuen estaldura-maila edo beharizan teknikoekiko egokitzapena”. Orain, ordea, Gobernuaren proiektuak hori aldatu, eta denbora-erreferentziarik ez da agertzen. 14. artikulua azken lerokada ere kendu da, non zehazten baitzen “arau orokor gisa, batzordeak bilkura arrunta eginen du sei hilabete behin”. Ez dira bermatzen, horrenbestez, beharrezko kontrola eta jarraipena.

Izenaz, egitura organikoaz eta kontsultarako nahiz kontrolerako organo eta prozedurez gainera, proiektu honek Legearen beste alderdi bat aldatzea ere proposatzen du, eta gai hori, gure iritziz, funtsezkoa da: eginkizun gutxiago esleitzen dizkio Bankuari odol- eta ehun-emateari dagokionez, eta giza organoekin zerikusia duten alderdi oro desagerraraztea proposatzen du. Ez dago, beraz, gaur egungo legea garatzeko edo hobetzeko interesik, baizik eta dituen potentzialtasunak urritzeko. Bistakoa da, ondorioz, Gobernuak proposatzen duena atzerapen larria dela.

6. artikuluan, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankuaren eginkizunak arautzen dituen horretan, garrantzitsuak diren zenbait alderdi desagerrarazi egin dira. Esate baterako, zelulen eta giza ehunen banku gisa, Odol eta Ehun Bankuak utzi eginen dio zelulak eta ehunak ateratzeaz arduratzen diren taldeak koordinatzeari. Kontrol gutxiago eta iluntasun handiagoa, beste behin ere.

Eta 4. idatz-zatia ere kentzen da, halako moduz non deuseztatu egiten baita ADONA-Nafarroako Odol-emaileen Elkartearekin sinatutako lankidetzarako esparru-hitzarmena odolaren eta hezur-muinaren ematearen planifikaziorako eta sustapenerako, Foru Legeak ezarritakoari jarraituta sinatu zena. Horrekin bazter uzten da, de facto, hain justu alor horretan lan egiten duen elkarte, eta paradoxikoa da 6. idatz-zatia bere horretan gelditzea, honela baitio hitzez hitz: “Emate altruisten sustapena bateratzea bultzatu eta sustatuko da, esparru horretan jarduten duten elkarteekin arituz, baliabideak eta ahaleginak bategite aldera.” Ulertezina da, beraz, ADONArekin sinatutako esparru-hitzarmenaren formalizazioa desagerraraztea, non eta arrazoia ez den ez dagoela benetako borondaterik elkarte horrekin modu eraginkorrean aritzeko lankidetzan.

Bistakoa denez, Nafarroako Gobernuak garatu gabe dauka oraindik Foru Legean ehunen eta organoen arloan jasotakoaren gehientsuena, eta ez du inongo interesik erakutsi urtean milioika euro mugitzen dituen jarduera hori arlo publikoan zentralizatzeko; gainera, gardentasun eskasa eta informazio falta ditu ezaugarri. Geure buruari galdetzen diogu, adibidez, zer neurri hartu diren organoen legea aplikatzeko, 2070/1999 Errege Dekretuari eta 2010/45/EB Zuzentarauari jarraituz. Edo nola funtzionatzen duen organoen eta ehunen emate, kontserbazio, garraio eta inplantaziorako sareak. Edo zein den benetako jarduna giza ehunen eta organoen arloan, edo erabakiak nola hartzen diren. Edo zer protokolo mota aplikatzen diren, zer kalitate-sistema inplementatzen diren, etab.

20/2010 Foru Legeak, zioen azalpenean, honek dio: "Foru lege honek, halaber, xede du organo-erazketa eta -transplantei buruzko urriaren 27ko 30/1979 Legea aplikatzea, bai eta abenduaren 30eko 2070/1999 Errege Dekretua ere, zeinaren bidez arautzen baitira giza organoen eskuratze eta erabilera klinikoko jarduerak eta organo eta ehunen emate eta transplantearen alorreko lurraldekoordinazioa". Legeak espresuki adierazten du ezen "horietara egokitzeko (...) osasun-agintariek (...) Nafarroako Odol eta Ehun Bankuaren egitura erabiliko dute 'Emate eta Transplanteen Koordinazioa' izena hartuko duenaren bidez." Geroztik, 2010/45/EB Zuzentaru eman zen, transplanteetarako giza organoen kalitateari eta segurtasunari buruzkoa.

Bada, Nafarroako Gobernuaren foru lege proiektuan, jarduera hau arautu beharrean oinarrituz legedi estatalaren nahiz europarraren printzipioetan, atzerapauso bat egiten da giza organoekin zerikusia duen jarduera ororen kontrol publikoari dagokionez. Lehenago ere adierazi dugunez, Odol eta Ehun Bankuaren eginkizunetatik eta egitura organikotik kendu egin da giza organoekin zerikusia duen guztia; alderdiok aurreikusita zituen legeak, eta potentzial handia zuten, baina, edonola ere, garatu gabe zeuden.

Lege proiektuaren zioen azalpenak dio, proposatzen duena justifikatzeko, odolarekin, zelulekin eta ehunekin zerikusia duten jarduerak, batetik, eta organoen ematearekin eta transplantearekin zerikusia dutenak, bestetik, bi jarduera oso desberdin direla. Baina, egia dena da inongo arazorik gabe uztar daitezkeela. Guztiak ere baliabide urriak dira, giza jatorrikoak bakarrik eta modu altruistan emandakoak. Eta horiek lortzeko eta garraitzeko prozesua antzekoa da eta modu paraleloan egiten da edo egin daiteke.

Gerta daiteke eskaera oso handia izatea eta, aldiz, eskaintza, eskura dagoena alegia, txikia; ondorioz, Legearen zioen azalpenean esaten den bezala, "haien kudeaketarik onena bateragarria da, bakar-bakarrik, administrazio publikoari eta haren menpeko organismoen osasunaren gainean dagokien zaintza orokorraren bermearekin". Baieztapen horrek 2010/45/EB Zuzentaru adierazitako filosofia jasotzen du, hitzez hitz, honakoa esaten baitu: "hobe da ematea, esleipena, trazabilitatea eta ardura irabazi asmorik gabeko erakunde ofizialki onartutako bakar baten esku gelditzea." Begi bistakoa da Klinika Unibertsitariok dela Nafarroan jarduera horren monopolioa duena, eta Gobernuak saiatzen da deuseztatzen lege horrek izan lezakeen potentzialtasuna organoen kudeaketa publikoa izatera pasatzeko, eta gu ezin gara horrekin ados egon.

Foru Legearen 4. artikuluan ("Doakotasuna eta irabazi-asmorik eza" du izenburua), honakoa esaten da hitzez hitz: "Odol-, zelula-, ehun- eta organo-establezimenduen jarduerak ez dute irabazi-asmorik izanen, eta soil-soilik ordainarazi ahalko dira baimendutako jarduerak egiteagatik emandako zerbitzuen egiazko kostuak". Proposatzen den aldaketarekin, baieztapen horretatik kanpo geldituko dira organoekin zerikusia duten jarduerak. Alegia, doakotasunak eta irabazi-asmorik ezak ez die eragin behar organoek? Kontuan hartuta zer garrantzitsua den organoen trafikoaren aurkako borroka –arau guztietan dago jaso, eta, 2010/45/EB Zuzentaru, espresuki– ueste dugu ausarkeria dela arautze horretatik eta kontrol publikotik kanpo uztea organoekin zerikusia duten jarduerak.

Garrantzitsua da kontuan hartzea, halaber, proiektuarekin desagerrarazi egiten direla, zioen azalpenean esaten den moduan, "giza organoak lortu eta klinikoki erabiltzearekin zerikusia duten alderdi guztiak, bai organoen emate eta transplanteen lurraldeko eta erkidegoko koordinazioa, baita (...) beharrezkotzat jotzen diren gainerako alderdiak ere". Orduan, nola antolatuko dira alderdi horiek guztiak? Hori dena kentzearen ondorioa da, zalan-tzarik gabe, gardentasun falta eta kontrol publikoaren falta.

Adibidez, 10. artikulua –organo-emateen eta -transplanteen koordinazioari buruzkoa da– desagerrarazi egiten da; artikulua horrek, 2070/1999 Errege Dekretuko 20. artikulua aplikatuz, koordinatzaile autonomikoaren figura sortu, eta horren eginkizunak arautu zituen.

Proiektuaren zioen azalpenean honakoa ere esaten da, gainera: "Aholku Batzorde Teknikoak kontuan hartu du organoen ematearen eta eraz-

ketaren gainean dagoen araudia; izan ere, araudi horretan ez dago inolako aipamenik transplanteen koordinazio autonomikoaren menpekotasunaren gainean". Hori ez da egia; izan ere, 2070/1999 Errege Dekretuko 20. artikulua 1. idatz-zatiak espresuki esaten du "autonomia erkidegoek transplanteen koordinazio unitate autonomikoak ezarriko dituztela, koordinatzaile autonomiko batek zuzenduak, kasuan-kasuan eskuduna den agintariak izendatua". Horrek esan nahi du, gainera, organoen ematearen eta transplanteen koordinazio autonomikoa desagertu egiten dela Giza Zelulen eta Ehunen Sare Transfusionalaren osaeratik. 15 artikulua ere aldatu egiten da, eta Ehunen eta Organoen Batzorde Teknikotik desagertu egiten da organoei buruzko zatia –Batzordean zuen parte-hartzea–, eta desagertu egiten da, beraz, sei hilabetean behin informatu beharra zer bilakaera izan duten detekzioak, emateak eta eskuratzeak. Horrenbestez, alderdi hori arautu gabe uzten da berriro ere, eta, gainera, zalantza gehiago sortzen dira: Nork zuzentzen eta koordinatzen ditu transplanteak? Nola koordinatzen da organoen ateratzea, garraioa eta transplantea? Administrazio Publikoa inplikatzeko ez duen arautzerik gabe, zer kontrol- eta jarraipen-mota egin daiteke? Nahitaezko galderak dira, eta erantzun ez oso argikoak.

Eta, azkenik, bada gai bat oraindik ere larriagoa dena gure ustez. 20/2010 Foru Legearen 5. artikuluko g) letran erregistro bat sortzeari buruz hitz egiten zen: "Odol-, zelula-, ehun- eta organo-emateak osaturiko talde osoarentzako erregistro bateratua (...), bai eta aldi baterako edo behin betiko bazterturiko emateen erregistro bat ere, bazterketaren arrazioak adieraziko dituen". Aldaketa-proposamenaren, letra hori ezabatu egiten da, eta, ondorioz, baita emateen erregistro bateratu hori ere. Eta geure buruari galdetzen diogu, orduan, ehunak inplantatzean edo organoak transplantatzean gertatzen diren kontrako erreakzioei buruzko informazioa nola jasoko eta transmitituko da? Nola antolatuko da, orduan, ematearengandik hartzaile-arenganako –eta alderantzizko– trazabilitatea? De facto, beharrezkoak ez diren arriskuak hartzea dakar horrek, eta horiek gaurko araudian saihestuta daude, zehazki 2010/45/EB Zuzentarauaren 10. eta 18. artikuluetan.

Bide beretik, 9. artikulua ere aldatzen da, hau da, giza zelula, ehun eta organoen lorpenerako eta/edo inplanterako unitatei buruzkoa. e) letran, kendu egiten da organoen oraingo aipamena: "zelulen, ehunen eta organoen erauzketen eta inplanteen erregistro eguneratu bat mantentzea, bai eta zentroaren jarduerarekin zerikusia duten administrazio-alderdi guztiena ere." Beraz, zer erregistro mota erabiliko da organoetarako? Nola kon-

trolatuko da?, Nork kontrolatuko du? Eta zalantza horiek guztiak itxaronzerrendak ere hartzen dituzte, jakina.

Azken batean, uste oso daukagu orain bi urte eskas onetsitako 20/2010 Foru Legeak egoki erantzuten diola gaur egungo legedi estatalari eta europarrari, beharrezko gardentasuna eta kontrol publikoa ziurtatzen dituela, eta garatzeko ahalbide handia duela oraindik ere.

Horregatik, Nafarroa Bai eta Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeek osoko zuzenketa hau aurkeztu dute, foru lege proiektu hau Gobernuari itzul dakion, uste baitugu Gobernuaren asmo bakarra dela arlo honetan eginiko bidean atzera egitea.

2. ZUZENKETA

IZQUIERDA-EZKERRA

PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTUA

Osoko zuzenketa, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzeko aurkeztutako Foru Lege proiektuari. Foru Lege proiektuaren izenburu osoa honakoa da: Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.

Zioen azalpena: Aurkeztu den foru lege proiektuak gauzaez bihurtuko luke 2010eko legea, zeina zabalagoa baita, araututa baitaizka organoen emateari, ateratzeari eta transplantei buruzko alderdi guztiak, proposatutako lege berriak kendu egiten dituenak.

Foru Lege proiektuak ez du jasotzen Europar odol-, ehun- eta organo-ematearen arloan dagoen legedia. Horrela, Estatuak ez badu ere errege-dekretu bidez Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2010eko uztailaren 7ko 2010/45/EB Zuzentarauaren transposizioerik egin –zuzentarau hori transplanteetarako diren giza organoen kalitatearen eta segurtasunaren arauari buruzkoa dataxuzkoena eta egokiena litzateke Europako legedia Nafarroako legedi berrian sartzea, Estatuak beste autonomia erkidego batzuek egin duten bezala.

Nafarroa, beraz, Estatuan gutxi barru onetsiko den legediaren aurretik dabilenez, egokia dena da berrikustea eta egokitzea organoen emateari eta transplantei buruzko legedia, Europako zuzenta-

ruari jarraituz. Ez du inongo zentzurik Nafarroako arauak aldatzeak odolaren, zelulen, ehunen eta organoen emateari eta erabilerari buruz, kontuan izan gabe giza organoen arloko guztia (ematea, ateratzea, kontserbazioa, garraioa eta inplantazioa).

Arauak gaur egungo legedira eta zirkunstantzi-eta egokitu behar dira, eta modu globalean eta integralean tratatu behar dira bai odol-, zelula-, ehun- eta organo-emateak, bai eta horien erabilera medikoa ere.

Bestalde, ez da ebaluatu 20/2010 Legearen betetze-maila, zeinak Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortu baitzuen, eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezarri ere bai; lege horrek oinarritzko erreferentzia izan behar du arautze berrirako.

Sortu beharreko erakundearen egiturari dagokionez, bistakoa da egitura horrek bideratua egon beharko duela araudiak ezarriko dizkion balizko xedea eta helburuak betetzera. Garrantzi handia dute zuzendaritza-organoen diseinuak eta baliabideen optimizaziorako prozesuetan parte hartzen duten eragileen arteko harremanak eta interakzioak; garrantzi handia, halaber, kudeaketaren efizi-

entziak eta herritarrei –bereziki emaila posiblei– konfiantza helarazteak. Hori ez da posible arau horretatik ezabatu egiten bada organoen kudeaketari buruzko oro.

Laburbilduz, Nafarroak, gainerako autonomia erkidegoek eta Europar Batasuneko herrialde guztiek bezala, bete beharra dauka odol-, ehun- eta organo-ematearen arloan dagoen legedia; ondorioz, Nafarroako arauak taxutzean, nahitaez izan behar da kontuan gaur egungo legediaren transposizioa egin behar dela, hau da, Europako legedia bertako ordenamendu juridikora ekarri behar dela.

Horiek horrela, Izquierda-Ezkerra parlamentutaldeak eskatzen du Nafarroako Gobernuari itzul dakiola abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzeko aurkeztutako Foru Lege proiektua, honakoa duena izenburu osoa: Foru Lege proiektua, abenduaren 13ko 20/2010 Foru Legea aldatzen duena, hots, Nafarroako Foru Komunitateko Odol eta Ehun Bankua izeneko entitate publikoa sortzen duena eta Nafarroan Giza Ehunen eta Zelulen Transfusio Sarearen antolamendua ezartzen duena, hemendik aurrera honela deituko baita: 20/2010 Foru Legea, abenduaren 13koa, Nafarroako Odol eta Ehun Bankua arautzen duena.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzkoa.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2012ko irailaren 26ko 76. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Nafarroako ekintzaileei eta lan autonomoari laguntzeari buruzko Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasi eta 2012ko abenduaren 13ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148. artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituenak.

ZUZENKETAK AURKEZTEKO EPEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Legebiltzarrak, 2012ko azaroaren 8an egindako Osoko Bilkuran, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituen Foru Lege proposamena aintzat hartzea erabaki zuen. Proposamen hori Socialistas de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu eta 2012ko irailaren 25eko 75. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako bekak enbargaezin deklaratzeko dituen Foru Lege proposamena prozedura arruntari jarraikiz izapidetzea.

2. Proposamen horri buruz irizpena emateko ahalmena Gizarte Politiketako Batzordearen esku uztea.

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Erabaki hau argitaratzen denetik **hamabost egun balioduneko epea hasi eta 2012ko abenduaren 13ko eguerdiko hamabietan bukatuko da.** Epe horretan, Erregelamenduko 128. eta 148.

artikuluetan ezarritakoarekin bat, parlamentu-taldeek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahalko dizkiote proposamenari.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

Foru Lege proposamena, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzekoa, udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera.

IZAPIDETZE PROZEDURA ALDATU DA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2012ko azaroaren 12an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Ikusita Legelari Nagusiak emandako txostena, udaletako zinegotzien eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena izapidetzeari buruzkoa, Erregelamenduaren 37.1.zazpigarrena artikuluekin bat, hona ERABAKIA:

1. Akatsa antzeman da 2012ko urriaren 1eko Erabakian, non ezartzen baita prozedura arruntari jarraituz izapidetuko dela udaletako zinegotzien

eta kontzejuetako kideen boto-eskuordetzea ezartze aldera Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea aldatzeko Foru Lege proposamena. Hori dela eta, zuzenketa hau egiten dugu:

Lehenbiziko paragrafoan, hauxe esan ordez: "Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat"; honela behar du: "Legebiltzarreko Erregelamenduko 148., 152.1 eta 153. artikuluetan ezarritakoarekin bat"

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2012ko azaroaren 12an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera